

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

1117

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 4koa, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak prestatu du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusia, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak zehazten duenaren arabera izapidetu behar da.

Lege horren xedapenak betez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuak agindu bat eman zuen 2024ko urriaren 15ean, dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Aipatutako 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin behar dira, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoiei zuzenean eragiten badie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutako guztiagatik, eta aipatutako dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren 2024ko urriaren 15eko Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 11.b) artikuluekin lotuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua, hamabost (15) egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, solairuartea) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Hirugarrena.– Alegazioak modu elektronikoa aurkeztu ahal izango dira <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/helbidean>, eta aurrez aurre Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, solairuartera), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan ere. Gainera, Bizitza Beterako Laguntzen zuzendariari zuzendu beharko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 4a.

Bizitza Beterako Laguntzen zuzendaria,
MARÍA ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO.